

NEGOZIO IDEIAK ETA BALIO PROPOSAMENA

1.- Uhin hotzak

2.- Karpeta arbela

3.- Dutxa lehorgailua igerilekuetan

4.- Pakete-ontzia

5.- Motxila aterkina bat barruan

IRIZPIDEAK					
IDEIA	BERRITZAILEA	APLIKATZEKO ERRAZA	DIRUA IRABAZIKO DUGU?	ILUSIOA EGITEN DIZU	PUNTUAZIO TOTALA
	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA	1-TIK / 5-RA
1	4	5	2	3	3,5
2	4	5	4	4	4,25
3	4	2	4	4	3,5
4	4	5	4	5	4,5
5	1	2	2	1	1,5

3 ideia hobereenen artean puntu gehien dituenak aukeratu:

GALDERA SORTA (Karpeta arbela)	1	2	3	4	5
1- Gure produktu/zerbitzua prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?				x	
2-Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?					x
3- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?			x		
4- Merkatuan bere beharra al dago?				x	
5- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu ?					x
6- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?		x			
7- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?					x
8-Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?					x
9-Lan gogor egiteko prest al gaude?					x
PUNTUAZIO TOTALA	4,4				

GALDERA SORTA (Pakete-ontzia)	1	2	3	4	5
1- Gure produktu/zerbitzua prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?					x
2-Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?				x	
3- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?					x
4- Merkatuan bere beharra al dago?					x
5- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu ?				x	
6- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?			x		
7- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?					x
8-Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?					x
9-Lan gogor egiteko prest al gaude?					x

PUNTUAZIO TOTALA	4, 56
------------------	--------------

GALDERA SORTA (Dutxa lehorgailua)	1	2	3	4	5
1- Gure produktu/zerbitzua prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?			x		
2-Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?		x			
3- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?			x		
4- Merkatuan bere beharra al dago?			x		
5- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu ?		x			
6- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?		x			
7- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?			x		
8-Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?				x	
9-Lan gogor egiteko prest al gaude?				x	
PUNTUAZIO TOTALA	2,9				

Zergatik da berritzailea?

Pakete-ontzia berritzailea da banatzaileak pakete estandarrak eta handiak utzi ahal dituelako zure atarian, zu etxean egon barik.

PRESTAZIOAK

Gure produktuaren prestazioak oso erabilgarriak eta lagungarriak dira gaur egungo gizartean. Hau internetez erosketak egiten dituzten erosleentzat zuzenduta dago. Pakete guztiak etxera eramaten dizkizute, etxean egoteko beharrik gabe. Egoera hauetarako dago pentsatua gure produktua. Banatzaileak etxean ez zaudela ikustean interfonoa jo ahalko du eta aplikazioaren bidez erabiltzaileak baimena emango dio eta ireki ahalko du zure ataria eta pakete-ontzia eta zure paketea atarian edukiko duzu. Horrela ez zara joan behar correos-era zure paketeren bila, denbora aurreztuko duzu.

PERTSONALIZAZIOA

Produktu honetarako bakarrik beharrezkoa izango da erabiltzaile bakoitzak solairua eta hizkia izatea. Baina xehapen honetaz gain, gero bakoitzak beraiek nahi duten bezala pertsonalizatu ahalko dute, hau da, bezero bakoitzak beraiek nahi duten diseinua aukeratuko dute beraien postontziko atearantzako. Auzokide guztiak ados jartzen badira, ontzi guztia kolore berdina izango du.

LANA ERRAZTEA

Honek zuri eta banatzaileari erraztuko die lana. Hasteko, banatzaileari lagunduko dio ez duelako eraman behar zure paketea furgonetara berriro etxean ez bazaude. Ez bazaude etxean zure pakete-ontzian utziko du eta ez du egingo beste bidai bat correos-era pakete guztiekin. Zuri ere lana erraztuko dizu ez duzulako paketearen bila joateko bidaia egin beharko, zure atarian izango baituzu.

DISEINUA

- Tamaina eta edukiera:

Postontzi normalak izango ditu eta behean postontzi handia egongo da, pakete handi bat egonez gero hor sartzeko. Egoera berezietan bakarrik erabili ahal izango da eta erabiltzaileek aplikazioaren bidez erreserbatu egin beharko dute eguna egun berean bi pakete handi ez egoteko.

Gauza estandarrak edo ertainak arazorik gabe kokatzeko bezain handia izan behar da. Dimentsio egokiak izan behar ditu objektuei egokitzeko.

- Material erresistenteak:

Erresistenteak diren materialekin egin behar da, hala nola, aluminioarekin edo erresistentzia handiko plastikoarekin.

Garrantzitsua da materialak iraunkorrak izatea eta postontzian utzitako objektuen pisua jasan ahal izatea.

- Sarbide segurua:

Diseinuak itxiera-mekanismo seguru bat izan behar du, lapurretak eta baimenik gabeko sarbideak saihesteko.

Ate txiki moduko bat izan behar du eta ez ditu zirrikiturik izango baimenik gabe irekitzeko edo edukiak lapurtzeko modukoa.

Objektu bat gorde ondoren automatikoki itxiko den ate bat egongo da, banatzaileak ixten ez badu.


- Argiztapena

Auzokideen ontzi bakoitzak gailu txiki bat izango du. Ontzian ezer ez dagoenean berdea egongo da eta zerbait sartzen dutenean gorria egongo da. Honek erraztuko du auzokideak etxera joaten diren bakoitzean eta ez direnean gogoratzen pakete bat daukatela erraz jakiteko.

- Ontziaren atea

Bakarrik mugikorrarekin ireki egin ahal izango da, lapurketak edo lapurtzen saiatzen ez uzteko. Aplikazioarekin onespina ematen duten bakoitzen automatikoki ireki egingo da.

Hau izango da gure produktua erabiltzeko erabiltzaileek behar duten aplikazioaren diseinua.



BERRITASUNA

Pakete estandarrek eta handiak sartu ahal dira etxean egon barik. Ez zara etxean egon behar pakete bat entregatzen duten bakoitzean. Ez zara paketeak hartu behar diren tokietara joan behar paketeak hartzera eta paketeen galera saihestu ahal da, hau da, paketeak ez dira inoiz galduko entregatzen ez badira.

ERABILERRAZTASUNA


Auzokide bakoitzak aplikazio bat izango du ontzia erabili ahal izateko. Pakete bat ekartzerakoan, banatzaileari aplikazioaren bidez ireki ahal izango zaio atea eta ontzia. Paketea ontzian jarriko du eta erabiltzaileak etxera ailegatzerakoan mugikorrarekin irekitzeko ahalmena izango du.

IZENA: BOXINPLACE

LEMA:

“Every package has its space”

LOGOTIPOA:



MISIOA

Pertsonen bitza erraztea, etxean paketeak jasotzeko irtenbide berritzaile eta seguruak eskainiz. Pakete eraginkor, iraunkor eta erresistenteetarako postontzi handiak diseinatzeko eta fabrikatzeko konpromisoa hartzen dugu, gure bezeroei lasaitasuna eskainiz, haien bidalketak segurtasunez eta komenigarritasunez entregatuko direla bermatzen baitugu.

IKUSPEGIA

Aitzindariak izatea paketeentzako postontzien merkatuan, diseinuan, kalitatean eta bezeroarentzako zerbitzuan dugun bikaintasunagatik aintzatetsiak. Gure presentzia globala hedatzen ahalegintzen gara, eta, horretarako, munduaren inguruko komunitateen ongizateari laguntzen diogu, entregen logistika sinplifikatzen eta paketeen segurtasunarekin lotutako kezkak murrizten.

BALIOAK

Berrikuntza: Gure produktuak hobetzeko modu berriak bilatzen ditugu etengabe, merkatuaren behar aldakorrak asetzeko eta gure bezeroen itxaropenak gainditzeko.

Kalitatea: Gure produktu guztietan kalitate estandar altuenak mantentzeko konpromisoa hartzen dugu, paketeetarako gure postontzien iraunkortasuna eta eraginkortasuna ziurtatuz.

Bezeroarekiko konpromisoa: Egiten dugun guztiaren erdigunean jartzen ditugu gure bezeroak, aparteko zerbitzu bat eta haien beharrak eta itxaropenak asetzen dituzten irtenbide pertsonalizatuak eskainiz.